



IFZ / NIF: P3147827D

**Malerrekako Zerbitzu Orokorrren
Mankomunitatearen eta Ttipi-Ttapa
Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena**

**Convenio de colaboración entre la
Mancomunidad de Servicios Generales de
Malerreka y la Fundación Ttipi-Ttapa.**

Doneztebe, sinadura digitalean
zehaztutako datan

Doneztebe, a la fecha de la firma digital

BILDURIK:

Alde batetik Jon Telletxea Juanenea (NAN XX.XXX.XXX-X), Malerrekako Zerbitzu Orokorrren Mankomunitateko lehendakaria, erakunde horren izenean (P3147827D), eta indarrean dagoen legediak emandako ahalmenaren arabera.

Bertze aldetik, Paskual Rekalde Irigoen (NAN XX.XXX.XXX-X), Ttipi-Ttapa Fundazioaren Patronatuko (IFK: G31595473) ahaldua denez, erakunde horren izenean, Ttipi-Ttapa Fundazioaren Patronatuak 1998ko abenduaren 18an egindako bileran hartutako erabakia jarraituz, ahalduak ordezkatzeko baitu Ttipi-Ttapa Fundazioa edozein instituzio ofizialen aitzinean.

ADIERAZTEN DUTE:

- Ttipi-Ttapa Fundazioak (hemendik aitzinera *fundazioa*) Ttipi-Ttapa aldizkaria argitaratzen duela.
- Aldizkaria Malerrekako etxe guztietan hartzeko aukera dagoela.
- Aldizkaria euskaraz dela, eta, Malerrekako Zerbitzu Orokorrren Mankomunitatearen (hemendik aitzinera *mankomunitatea*) estatutuetan jasotzen diren helburuekin bat eginez, Malerrekan euskararen erabilera indartzeko, gizarteratzeko eta sustatzeko ezinbertzeko tresna dela.
- Aldizkariak eskualdeko albisteak, gertaerak, tokiko gizarte bizitza eta kultura adierazpenak, hala nola mankomunitate honen ustez bertako herritarrentzat bereziki interesgarri diren edukiak gizarteratu eta hedatzen dituela.

REUNIDOS:

De una parte, Jon Telletxea Juanenea (D.N.I. XX.XXX.XXX-X), presidente de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka (P3147827D), actuando en nombre y representación de dicha entidad, al amparo de la legislación vigente.

De otra parte, Paskual Rekalde Irigoen (D.N.I. XX.XXX.XXX-X) como apoderado del Patronato de la Fundación Ttipi-Ttapa (C.I.F. G31595473), actuando en representación de dicha entidad, conforme al acuerdo adoptado en la reunión del Patronato de la Fundación Ttipi-Ttapa el 18 de diciembre de 1998, en la cual se determinó que el apoderado representa a la fundación ante cualquier institución oficial.

MANIFIESTAN:

- Que la Fundación Ttipi-Ttapa (en adelante, la fundación) publica la revista Ttipi-Ttapa.
- Que la revista está disponible para todos los hogares de Malerreka.
- Que la revista está en euskera, y que conforme a los fines recogidos en los estatutos de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka (en adelante, la *mancomunidad*) constituye una herramienta fundamental para fortalecer la utilización y socialización del euskera en la comarca de Malerreka.
- Que la revista difunde y extiende en la comarca de Malerreka noticias sobre sucesos, vida social local, expresiones culturales y, en general, contenidos que la mancomunidad

- Ttipi-ttapa hamabortzekaria da eskualdeko informazioa euskaraz ematen duen aldizkari bakarra.

considera de especial interés para la ciudadanía.

- Que Ttipi-ttapa es la única revista quincenal que ofrece información sobre la comarca en euskera.

Horiek horrela, bi aldeek beren arteko harremana arautzeko asmoarekin hitzarmen hau egin dute.

Por lo expuesto, ambas partes formalizan el presente convenio con el objetivo de regular su colaboración.

HITZARTU DUTE:

ACUERDAN:

Lehenik.- Tokiko hedabide honek bere jarduerarekin jarrai dezan mankomunitateak 9.600 euroko diru laguntza emanen dio 2025ean. Horretarako mankomunitateko aurrekontuan entitatearen izenarekin izendatutako partidako kreditua erabiliko du (1 3350 48203 kontu saila *Ttipi-ttapari diru-laguntza*).

Primero.- Para asegurar la continuidad de la actividad de este medio de comunicación local, la mancomunidad le concederá una subvención de 9.600 euros en 2025. Para ello se utilizará el crédito presupuestario disponible en la aplicación presupuestaria denominada con el nombre de la entidad (aplicación presupuestaria 1 3350 48203 *Subvención a Ttipi-ttapa*).

Diru laguntza bi zatitan ordainduko da, lehena hitzarmena sinatu ondotik, eta, bigarrena, fundazioak eskatutako dokumentazioa aurkeztutakoan hau aztertu eta lehendakariak ordaintzea ebatzi ondotik.

La subvención se abonará en dos partes, la primera tras la firma de este convenio, y la segunda una vez presentada la documentación requerida, revisada esta y aprobada su pago por la presidencia de la mancomunidad.

Bigarrenik.- Fundazioak honakoak egingen ditu:

Segundo. – La Fundación Ttipi-Ttapa se compromete a:

1. Fundazioak argitaratzen duen aldizkariak tokiko euskarazko hedabideen izaerari eutsiko dio.
2. Malerrekan euskararen erabilera gizarteratzeko eta sustatzeko helburua duten ekimenen berri emanen du.
3. Aldizkarian mankomunitateak emandako diru laguntzaren berri emanen du.

1. Mantener la identidad de la revista como medio de comunicación local en euskera.
2. Informar sobre iniciativas cuyo objetivo sea socializar y fomentar el uso del euskera en Malerreka.
3. Publicar en la revista información sobre la subvención concedida por la mancomunidad.

Hirugarrenik.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epeak.

Tercero. - Documentación y plazos de presentación.

1.- 2025eko abenduaren 2a azkeneko eguna izanen da fundazioak honako dokumentazio hau aurkezteko:

1.- La fecha límite para la presentación de la documentación **será el 2 de diciembre de 2025**. La documentación a presentar incluirá:

- a) Urteko jardueren memoria. Agerkariet buruzko oinarritzko informazioa jasotzen duen txostena, bertzeak bertze, hau jasoko duena (Malerrekakoa nahiz orokorra): aldizkariaren maiztasuna eta urteko zenbaki kopurua, harpidetza, tirada, aleko orrialde kopurua, lurralde

- a) Memoria anual de actividades, con información esencial sobre la revista, incluyendo (de Malerreka y general): frecuencia de publicación, número de ediciones anuales, suscripciones, tirada, número de páginas por ejemplar,

hedadura, web orriko bisitak, bertsio digitalaren informazioa, etab.

cobertura territorial, visitas a la página web, información sobre la versión digital, etc.

b) Memoria ekonomikoa, sarrerak eta gastuak xeheki zehaztuz:

b) Memoria económica, detallando ingresos y gastos:

- Diru-sarrerak: bertzelako erakunde publikoetan eta bertze autonomia erkidegoetako administrazioetan eskatu edo harturiko laguntza guztiak adieraziko dira, bai partikularrek emandakoak baita enpresa pribatuetako bertzelako diru sarrerak ere (babesak, publizitatea...)
- Gastuak: ongi zehaztu behar dira langileak eta kolaboratzaileak kontratatzetik sorturiko gastuak, utsiapen gastu orokorrak eta funtzionamendu eta banaketa gastuak zein eta zenbatekoak diren. Gainera, egindako gastuen fakturak eta ordainagiriak aurkeztu beharko dira. Nahikoa izanen da jasoko den diru laguntzaren zenbatekoa (9.600 €) justifikatzen duten gastuen agiriak aurkeztea.

- Ingresos: incluirá todas las subvenciones solicitadas o recibidas en otras instituciones públicas y administraciones de otras Comunidades Autónomas, tanto de particulares como de otras empresas privadas (patrocinios, publicidad...)

- Gastos: deberá especificar los gastos derivados de la contratación de personal y colaboradores, gastos generales de explotación, funcionamiento y distribución, incluyendo el importe de cada uno. Se deberán presentar las facturas y justificantes de pago correspondientes. Solo será necesario justificar los gastos equivalentes al importe de la subvención recibida (9.600 €).

c) Zinpeko aitorpena, adieraziz urte osoko diru sarrerak aurkeztutako dokumentazioan agertzen diren horiek direla, eta ez gehiago; eta edozein kasutan, sarrera horiek ez direla gastuak baino handiagoak izan.

c) Declaración jurada en la que se certifique que los ingresos anuales corresponden a los declarados en la documentación presentada y que, en ningún caso, los ingresos superan a los gastos.

d) Erantzukizuneko aitorpena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. eta 14. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituela dioena.

d) Declaración responsable de que se cumplen los requisitos establecidos en los artículos 13 y 14 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da, mankomunitatearen erregistro elektronikoaren bidez.

Toda la documentación deberá presentarse telemáticamente a través del registro electrónico de la mancomunidad.

Laugarrenik.- Mankomunitateak, bere aldetik, eta diru laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legeari loturik, honako eginkizun hauek beteko ditu:

Cuarto. - La Mancomunidad, por su parte, de conformidad con la Ley 38/2003, del 17 de noviembre, General de Subvenciones, se compromete a:

1. Emandako diru laguntzaren kontrola eginen du laguntza oinarritzen den helburua eta ekintzak benetan bete direla egiaztatu ahal izateko.
2. Diru laguntzaren oinarriak bete ez

1. Controlar la subvención otorgada para verificar que se han cumplido los objetivos y actividades para los que fue concedida.
2. En caso de que se demuestre que no

direla frogatzen bada edota egoki egiaztatu ez direla ikusiz gero, mankomunitateak diru publikoa berreskuratzeko prozedura eta espedienteak izapidetuko ditu.

se han cumplido las bases de la subvención o no se han justificado correctamente los fondos, la mancomunidad iniciará los trámites necesarios para recuperar los fondos públicos.

Bortzgarrenik.- Hitzarmen honen iraupena urtebetekoa da.

Quinto. - La duración de este convenio es de un año.

Seigarrenik.- Hitzarmen honen interpretazioa mankomunitateari dagokio, eta Ttipi-ttapak mankomunitatearen erabakiak onartu beharko ditu.

Sexto. - La interpretación de este convenio corresponderá a la mancomunidad, y la fundación deberá aceptar las decisiones de esta.

Zazpigarrenik.- Hitzarmen hau bertan eta dirulaguntzen araudi orokorrean, 38/2003 Legean eta 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera arautuko da; gainera, Nafarroako toki entitateentzat ezarritako araudia aplikatuko da.

Séptimo. - Este convenio se regirá por lo contenido en sus propias cláusulas y por la normativa general en materia de subvenciones establecida en la Ley 38/2003 y el Real Decreto 887/2006, así como por la normativa específica aplicable a las entidades locales de Navarra.

Hitzarmen honen ondorioz sor daitezkeen auziak, beren izaera juridiko-administratiboa dela eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egonen dira.

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Eta horrela jasoa gera dadin, bi aldeek agiri hau onartu dute, bai eta bi ale sinatu ere eragin bakarrerako.

Y para que así conste, estando las dos partes conformes con el documento firman dos copias para un único efecto.

MALERREKAKO MANKOMUNITATEKO
LEHENDAKARIA

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

Jon Telletxea Juanenea

Paskual Rekalde Irigoien